



OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2025EKO AZAROAREN 13KO SAIORIK GABEKO EZOHIKO BILERAREN AKTA

2025eko azaroaren 13an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, modalitate ez-presentzialean eta saiorik gabe. Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kontseiluburuak deialdia egin izanagatik, kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua, kontseiluburua; **Gontzal Tamayo Medel jauna**, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea; **Aritz Uriarte Fuertes jauna**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jaurlaritzako Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuen zuzendaria.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetan parte hartu dute, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusia, **Lorea Bilbao Arteche andrea**, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek bozkatu egin dute gai-zerrendaren puntu bakarrari dagokionez, alde zuzenetik jakinarazitakoa.

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA. – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Ikerketa Sanitarioko Institutuen ordezkaria izango den pertsona fisikoa izendatzeko akordioa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen eta ente publikoaren Zuzendaritza Nagusiko zuzendaritza-organoen izendapenetan izandako aldaketak direla-eta, eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 6.2 a) artikulua babesean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak Miren Lorea Bilbao Arteché andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ordezkaria izango den pertsona fisiko izendatu du honako entitate hauetan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia delako:

Designar a Doña. Miren Lorea Bilbao Arteché, en su condición de Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, como persona física representante de Osakidetza-Servicio vasco de salud en las siguientes entidades:


- Biobizkaia, Osasun Ikerketa Institutua
- Bioaraba, Osasun Ikerketa Institutua
- Biogipuzkoa, Osasun Ikerketa Institutua
- Biosistemak, Osasun Sistemen Ikerketa Institutua

ERABAKIA: Administrazio Kontseiluak aho batez onartzen du aurkeztutako erabaki-proposamena.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 13a



Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio
Idazkaria



Izpta.- Alberto Martínez Ruiz
Kontseiluburua
Osasuneko sailburua
O.E.